

Otsailaren 13an, Jardunaldi Pedagogikoko bigarren mintegia egingo dute Eskoriatzako campusean

2017/02/06

Otsailaren 13an, astelehenarekin, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatzen duen Jardunaldi Pedagogiko bigarren mintegia egingo dute Eskoriatzako campusean. Jardunaldia hasiko da 09:00etan, eta bertan parte hartuko dute, fakultateko ikertzaileekin batera, **Juana Sancho** eta **Fernando Hernandez** Universitat de Barcelonako Didáctica i Organització Educativa Departamentuko ikertzaileek.

Lan-saioak hiru zati izango ditu. 09:00etatik 10:00etara, Juana Sanchok eta Fernando Hernandezek aurkeztuko dute **Esbrina** ikerketa taldeko ikerketa proiektu bat: ikerketaren diseinua, planteamendua, metodologiak... Ondoren, 11:00etatik 12:30etara Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko bi ikerketa taldek aurkeztuko dituzte eskuartean dituzten egitasmoak, hain zuzen ere, **ADI proiektua** (Atención a la diversidad cultural, lingüística y socioeconómica (isec) en la escuela: investigación sobre un modelo de intervención basado en la práctica reflexiva del profesorado) eta **Hezkuntza Mediatikoa** (Herritar aktiboak eta kritikoak etorkizunerako hezten: konpetentzia mediatiko-pedagogikoa lantzeko proposamena). Bukatzeko, 12:30etatik 13:00etara bildutakoek egingo dute jardunaldiaren post-analisia.

Jardunaldi Pedagogikoko lehenengo mintegia egin zen pasa den urtarrilaren 10ean, Eskoriatzako campusean.



Eskoriatzan, pasa den urtarrilean egindako jardunaldi pedagogikoa.